

Heriotzaren *beldur*

Juan Manuel González Cembellín

Itzulpena: Hori-Hori



"Iragankortasunaren alegoria", *Memento mori*. Cornelis Anthonisz, 1537

Jesús Muñiz Petralandak liburuki honetako artikuluan esaten duen moduan (8. orrialdea), guretzat heriotza gai labain eta desatsegina da eta gaur egun, zuzentasun politikoa nagusi dugula, ezikusi egiten saiatzen gara. Baina beti ez da horrela izan. Beste garai batzuetan heriotza, azken eta behin betiko igarotzea, errituz inguratuta zegoen. Erritu batzuk ikusgarriak ziren, eta denak ziren publikoak, gaur egun ez bezala, diskrezioz jarduten baitugu. Errituak azken uena heldu baino askoz lehenago hasten ziren eta asko luzatzen ziren heriotzaren ondoren. Ez ziren erlijiosoak bakarrik; aitzitik, arlo soziala eta ekonomikoa ere ukitzen zituzten.

Nola jokatzeko zuten heriotzaren aurrean Lekeition Erdi Aroaren amaieran?

Egia esan, oso zaila da jakitea. Oso informazio gutxi daukagu horri buruz: testamentu batzuk, lauda batzuk eta hilobi-kapera batzuk, zenbait erreferentzia ordenantzetan... Datu urri horiekin garai hartako jendeak heriotzaz zer uste zuen azaltzen saiatuko gara.

Baina gaiari ekin aurretik, orduko lekeitiarrak entzun aurretik, pare bat gauza gogoratu behar ditugu. Lehenengoa, gizartea oso kristaua zen. Garai hartan ez zegoen gaur bezalako bereizketarik esparru erlijiosoaren eta laikoaren artean: erlijioaren eragina zegoen giza jardun guztietan. Gertaera fisikoaz harago, heriotzak batez ere transzendentzia espirituala zeukan. Horregatik, heriotzaren inguruko errituetako asko erlijiosoak ziren. Eta horren guztiaren helburua salbazioa lortzea zen: "veyendo que este mundo es fallaçeduro e el otro perdurable".

Bigarrena, lekeitiarrak bilauak ziren. Hau da, hiribildu bateko biztanleak ziren. Horrek ondorio soziologiko handia zuen. Aldi hartan, eta 1000. urtearen ingurutik aurrera, gizartea honela antolatuta zegoen: batetik, *orator* zeritzenak zeuden, hots, denen salbaziorako otoi egiten zutenak (abadeak, fraideak eta mojak); bestetik, *bellator* zeritzenak, denak defenda-

tzeko borrokatzen zirenak (noble militarrek); azkenik, *laborator* izenekoak zeuden, hau da, denak mantentzeko lan egiten zutenak. Baina *laborator*-ak nekazariak ziren (*laborator*: lurra lantzen duena, laboraria). Bilauak, hiribilduetakoak, artisautzan eta merkataritzan aritzen ziren eta ez ziren sartzen eskema horretan. Izan ere, lurtean ez baziren, zeruan ere ez ziren izango. Beraz, ez zuten inolako aukerarik salbazioa, denen irrika eragiten zuena, lortzeko, eta horrek hainbat ondorio zeuzkan: purgatorioa “asmatu” zuten tarteko urrats gisa; Ama Birjina idealizatu zuten, Kristo bere semearen eta hil ondoren etorkizunik ez zuten pertsonen bitartekari gisa; hiritan debozioa eta eskuzabaltasuna indartu ziren, Azken Judizioan erruki apur bat lortzeko helburuarekin.

Heriotzari buruz hitz egiten duten Lekeitioko lehen dokumentuekin dugun lehen sentsazioa da jendea haren beldur zela, testu honen izenburuak adierazten duen moduan. Hona zer agertzen den berariaz testamentu guztietan:

“Temienonos de la muerte, que es cosa natural e ninguna criatura della puede escapar”.

Hilobiak

Baina gertaera bat halabeharrezkoa dela onartzeak ez dakar berekin ezinbestean horretarako prest egon behar ez dugunik. Eta lekeitiarrak egoten saiatzen ziren. Batetik, familia bakoitzak bere hilobia zuen, hildakoak noiznahi hartzeko gertu. Hasieran hilobiak hiribilduko eliza barruan (Andre Maria) egiten ziren; eliza hilerri handia zen funtsean. Jesús Muñiz Petralandak horri buruz eta hango hilarriek buruz hitz egiten digu. Hilarriok argi erakusten digute ezen, heriotzaz argi eduki arren “cosa natural” dela eta ez dagoela hartatik ihes egiterik (“ninguna

criatura della puede escapar”), hil ostean ez zegoela inolako berdintasun demokratikorik.

Nolanahi ere, 1368. urtean moja domingotarren komentua sortu zen hiribilduan. Domingotarrek eta frantziskotarrek (gizonezkoek nahiz emakumezkoek) aldaketa bat sustatu zuten kristau bizitza erlijiosoan, norberaren eta besteren karitatea lehen planoan jarriz. Horrek berehala erakarri zituen espiritualki baztertuta sentitzen ziren hiritarrak: ordena horien bitartez karitatez

aritzea oso lagungarria izan zitekeen zerua irabazteko. Eta are gehiago komentuaren barruan, mojangandik hurbil, hilobiratzea lortuz gero, bizimodu eskuzabalarari esker Jainkoarengandik oso hurbil baitzeuden. Beraz, ordutik aurrera Lekeitioko pertsona batzuk komentuan lurperatzen saiatu ziren. Ezagutzen dugun lehena Sancha López de Gastañagarena izan zen; hauxe agindu zuen 1383. urtean bere testamentuan:

“que quando la mi alma despidiere deste mi cuerpo, que este mi cuerpo que entierren en el dicho monesterio de las dichas monjas... del qual so familiar”.

Sancha komentuko “senidea” omen zen. Horrek esan nahi du ezkongai zegoela edo alargundu ondoren freila gisa lotu zitzaiola komen-

tuari, hau da, moja bihurtu zen de facto, nahiz eta abitua jantzi ez. Zeruko bidean aurrera egiteko modua zen.

Lurreko hilobiez ari gara. Baina familia aberatsenek baimena lortu zuten (ordainduta) elizako eta komentuko hormak apurtzeko eta hilibi-kaperak eraikitzeko. Eredu horietan erlijioari beste arlo bat eranstean zitzaien, gizarte-bizitza, handikeriarako aukera ematen zuten eta.

Andre Mariaren elizan garai hartako kaperak bat dago, Santa Anarena. Inskripzioa dago:

“Esta capilla y retablo fizieron M(art)in Martinez de Acha mercadero y Maria Urtiz de Guillestegui su muger por sus almas en el año de mill e d iii (1503)”.

Kapera eraikitzearen helburua Martinen eta Mariaren arimak salbatzea izan zen, baina horrez gainera eremu zoragarria da: gangaduna da eta burdin hesia dauka (jatorrizkoa, 1503koa), eta garai batean erre-taula ere egon zen (gaur egun ez dago, eta hilobiak ere ez, seguruenik ere lauda zizelatuak eduki zituztenak). Luxuzko hilobia izan zen. Zalan-tzarik gabe sortzaileen ustez zenbat eta gehiago eman aukera gehiago edukiko zituzten zeruetako erresuman sartzeko.



Lekeitioko Santo Domingo komentuko armarrria



Lekeitioko Andra Mari Zeruratzearen elizako Santa Ana kapera, 1503

Santo Domingon partikularren kaperak ere egon ziren. Oraindik badago Nicolas Ibañez de Arteitak 1487. urtean sortutakoa. Triptiko flamenko zoragarria eseki zuten; bertako ikonografiak argi erakusten digu nolako irrika zeukan Arteitak salbazioa erdiesteko: Erdiko taulan Kristo dago, gizateria salbatzeko hilik, salbazioa lortzeko bitarteko izango dugun Ama Birjinaren besoetan; alboko tauletan, Santo Domingo eta San Frantzisko (domingotarren eta frantziskotarren sortzaileak), oinetan Nicolas eta beraren emaztea dituztela.

Baina handikeriari bagagozkio, Nicolasen maila gainditu zuen bere seme Iñigok, almiranteak, 1503. urtean hilibi-kapera egin baitzuen elizako absidean. Pertsona horien debozioa eta erlijiotasuna egiazkoak ziren zalantzan ipini gabe, badirudi zerua eskuratzeaz gainera erkideak txundituta utzi ere nahi izan zutela.

Enel nombre de Dios Amén por el qual padre hijo y espiri-
 tuz Santo q son tres personas en un solo Dios Veradero y de la
 Virgen gloriosa Señora Santa maria su madre. Quen tengo por mi
 Señora y abogada en todos mis bienes espirituales y temporales creyendo
 como es. **F**irme mente. La Santa Fee catolica. Mas como la tiene y
 cree. La Santa madre y sea por ende yo garzia de y la sea y año de sus
 magestades. Y del numero desta villa del qual yo estando como al presente
 soy en mi sano juicio y en tenor tal qual fue serbio mi Señor. Y yo
 me fue y llegando en hecho de mi vejez. Y senetas. a serbio de su divina
 misericordia y abogacion de mi anima que es. fue. mi voluntad de lo
 de nar mi testamento y mandas en el contenido y ruego. Y yo
 Señora Santa maria como ella sea. Yee abogada de todos los pec-
 cados. Y yo Señor el mayor de los que por tal me acuso y lo mi amo
Fuero. Espies por mi. Señor Sant miquel arcangel y todos los Santos
 Sanctos de la corte del Señor de lo q delante mi Señor. Y yo me sean buenos.
 abogados. Y del tiempo de mi fin me aliman por don semie y cosas
 por la su Sagrada passion que **F**uegábio por nos y albor. La Santa
 Vera cruz. Aya piedad y misericordia de mi anima al tpo de su divina
 misericordia. Fuere de me e abar de este siglo y ere glia su eterno
 Paraiso Amen.

Emand que quando la misericordia
 e abar de este mundo mi anima
 Señora Santa maria
 de la xateca q es delante de
 del pul pito donde estubo
 de. Y sea mi primera
 gion de mi hijo Jacobo de
 mand. q de me vienes.
 braran de me hagan mis
 lias nobena y en dos años
 si se pan eia y del

Numero 14.
 Año de 1519.

Provision Real de S. Juana y S. Carlos su hijo Expedi-
 do en Oviedo a 23 de Julio de 1519. a peticion del Capitan
 Martin Garcia de Cerueta Apoderado de la Villa de Se-
 guito, para que en el Condado de Vizcaya q deus Encartame-
 tes, no hiciere ninguna persona endechar ni llantar so-
 bre los difuntos (por ser costumbre gentitica) pena de un mil
 maravedis. En el Reverso de dicha provision consta haver
 el Arcaero General de Santander en

Testamentuak

Hilobia prest eta apainduta daukagu, bada. Orain hurrengo urratsa dator, testamentua egitea, lurreko kontuak ondo kitatuta utzi behar baititugu azken egoera-aldaketa gertatu baino lehen.

Denak hasten dira Jainkoari deia egiten:

“E en el nonbre de Dios, Padre e Fijo (e) Spiritu Santo, que son tres personas e Santa Trinidad conplida, non departido vno de otro, e vn solo Dios que vive e regna por sienpre jamas; e en el nonbre de la Virgen bienaventurada, gloriosa Sennora Santa Maria, su madre e su esposa, e nuestra abogada sea, amen”.

Eta ondoren:

“por poner la mi alma en la mejor carrera que yo syento e puedo sentyr para llegar a Dios commo fiel christiana, creyendo firmemente en la santa fe catolyca e en todos los sus arrticulos en que es mi redençion e salut e salbaçion”.

Jesu Kristori eta Ama Birjinari eta zeruko gorte guztiari gomendatzen diete beren burua:

“Acomiendo la mi alma a Dios del çielo que la formo e crio, en que es la mi redepnçion, e pidole por merçed que la quiera resçibir por mano de los santos angeles e non consienta que los diablos ayan parte en ella; e a la Virgen bienaventurada, gloriosa Sennora Santa Maria, so madre e so esposa, en que es mi esperança e deuoçion e consolaçion, que ella sea rogadora e rasonadora por mi a su fijo Ihesu Christo; e al sennor Sant Miguel Arcangel, que la reçiva quando despidiere de mi cuerpo; e al sennor Santo Domingo, (el) qual ordeno la orden de los frayres pedricadores; e a todos los otros santos e santas de la corte del çielo”.
(Honela aipatzen da Ama Birjina: "nuestra abogada", "mi esperança", "rogadora y rasonadora por mí").

Eta lurreko gaiak, materialagoak (zorren ordainketa eta oinordeak eta albazeak izendatzea, esaterako), finkatzearekin batera zeruaren oniritzia lortzeko ahalegin gehiago egiten dira: dohaintzak, normalean dirutan, elizei (Andre Mariak jasotzen ditu gehienak), ermitei eta kometuei. Hori dela eta, deigarria da zenbat lekeitiarrek uzten zuten dirua Trinitatearen, Mesedeetakoaren eta Santa Eulaliaren ordenentzat; izan ere, ordena horiek Katalunian kokatuta zeuden eta musulmanen lurretan gatibu zeudenak askatzen "adituak" ziren. Ziur asko hiribilduetan bereizgarria zen karitaterako joera areagotu egiten zen herriko itsasgizonak askotan preso erortzeko arriskuan izaten zirelako Mediterraneoetik egiten zituzten bidaietan.

Testamentu batzuetan erromesaldiak aipatzen dira, egindakoak edo agindutakoak; ez dakigu debozioz egiten zituzten edo hutsen barkamena lortzeko asmoarekin. Horren erakusgarria da Juan Lopez de Arteitarena (Arteitatarrek berriro), 1383. urtean adierazi baitzuen zor zituela *“dos romeages a Santa Maria de Recamador... (y) la romeria de Santa Maria de Gadalupe”.*

Heriotza

Azkenean, heriotza heltzen zen. Eta ondoren lurperatzea. Hiletak minoizatean adierazpen arranditsuak izaten ziren, eta nonbait hain gehie-

gizkoak izan ziren ezen eskandalugarri bihurtu baitziren batzuen irizirako. 1519. urtean, hiribilduko errejidore (zinegotzi) batek, Martín García de Zearreta kapitainak, hauxe adierazi zion errege-kontseiluari:

“commo en tiempo de gentiles, quando muere alguna presona, sy es prinçipal vays vos, los dichos parientes mayores, con mucha gente al logar o parte donde falleçio el tal defunto, e alli todos fazeys vuestros llantos, mesando de los cabellos por muchas e diversas vezes, e fazeys grandes gastos y costas en yr a fazer los tales enterramientos y llantos; lo mismo diz que fazen al tiempo que muere alguna presona de baxa suerte, su muger e fijos e parientes, todos en cabello (=txanorik gabe, burua estali gabe); y que lo peor es que diz que quando mueren las tales presonas, que sean onbres o mugeres, endechan (=eresiak kanta-tzen) las mugeres estando asentadas a la cabeçera del defunto”.

Karlos I. erregeak horretako jokabideak debekatu zituen. Gainera, Calahorrako apezpikuak, Lekeition jurisdikzioa zuenak, hauxe adierazi zuen:

“quando alguno muere en la dicha villa de Lequeytio... al tiempo que lieban el cuerpo a la yglesia, donde a de ser soterrado, e quoando la cruz (vuelve) a la casa del tal defunto, en ofensa de Dios, nuestro sennor, y en turbaçion de los dibinos ofiçios, suelen azer grandes llantos, ombres e mugeres, mesandose e rascando las caras, dando alaridos e gritos e vozes a la manera de los gentiles en su tiempo solian azer, de que non poca turbaçion redundo en los coraçones y espiritus de los que lo oyen”.

Negar eta negar egitea, ileei tiraka ibiltzea, aurpegia urratzea... horiek guztiak min-adierazgarriak ziren Erdi Aroan, baina Errenazimenturako trantsizioa hasita zegoen aldi hartarako jada ez bide ziren egokiak, agintariek berek jentilen azturatzat jotzen zituzten eta.

Eta horrek guztiak, gainera, gastu handiak eragiten zituen: oturuntza gonbidatu guztientzat, musikariak eta abeslariak, erostariak eta abar. Gogora dezagun zer dioen Martín García de Zearreta kapitainak errege-kontseiluari aurkeztutako txostenean: *“fazeys grandes gastos y costas en yr a fazer los tales enterramientos”.* Hildakoa zama astuna zen bizirik zegoenarentzat.

Errituak ez ziren amaitzen hiletarekin. Horren ondoren hildakoaren ari-marengatik otoi egiten jarraitu behar zen, normalean hala adierazten zuelako testamentuan. Hona zer agindu zuen Toda de Liconak 1516. urtean:

“me hagan mis honrras, nobenario (=bederatziurrenean egiten den elizkizuna), e osequias, e cabo de anno, e todo el cunplimiento dellas, e me trayan çera (hilobiaren gainean kandelak ipintzeko), oblada (=ogi-eskaintza) e ofrenda commo es vso e costunbre en la dicha yglesia a persona de mi estado”.

Beraz, hiletak bera bezalako pertsonen mailakoak izan behar ziren. Ohi-koak izaten ziren segizioaren inguruko zehaztapenak: *“segund a persona de su manera cunplya”, “segund pertenesçe a persona de mi estado”, “segund que a persona de su callidad cunplen”.* Ohi bezala, gizarte-eskaerak erlijioarekin nahasten ziren.

Hildakoenganako betebeharrekin bost urte irauten zuten gutxienez, 1422. urtean Sancha de Labierok adierazi zuen moduan: *“me fagan ende*



"Stipendia peccati mors" Vanitas. Jean-Baptiste Corneille, 1680. Gallica, Bibliothèque Nationale de France

los complimentos de los çinco annos". Baina kasu batzuetan betierekoak ziren; esaterako, Toda de Liconak hauxe ezarri zien bere ondorengoei:

"por mi anima e (la) del dicho mi marido en cada semana ayan de sacar dos misas rezadas en la dicha yglesia de Santa Maria de la dicha villa, ellos en su tiempo e despues de su fin e muerte todos (sus) susçesores perpetua e por syenpre jamas; e que ayan de dar e pagar de capillania por cada misa doze maravedis, las quales dichas dos misas se ayan de desir e se digan en los dias miercoles e viernes de cada semana perpetuamente".

Ikusten dugu, beraz, hiletak zama astunak izan zitezkeela oinordeen ekonomiarako (kasu batzuetan bizitza osorako, gainera). Inoiz hiletan ondorioz arriskuan jartzen zen ondorengoaren ondarea. Hara zer ezarri zuen 1390. urtean María Martínez de Uribarrenek bere testamentuan:

"todas las mis mandas cunplidas e pagadas e fechos los mis enterramientos, (y lo) de los çinco annos, lo que fincare (=soberako dirua) mio mando que aya e herede Mansaxe, mi sobrina".

Eta lehen aipatu dugun Toda de Liconak, bere ondorengoengan uste

handirik ez bide zuenak, hauxe agindu zuen gorako ikusi ditugun mezen ordainketa bermatzeko:

"mando que los dichos bienes queden e finquen e sean obligados e ypotecados e binculados; e por la presente obligo e ypoteco e bynculo al cargo de las dichas dos misas perpetuas... e por la presente doy poder e facultad bastante... al cabildo de la dicha yglesia que sy rebeldes fueren los dichos mis herederos e susçesores en cunplir las dichas misas para que por su propia avtoridad, syn mandamiento de juez e con el, commo mas quisieren, puedan entrar e tomar en los dichos bienes e renta para en cunplimiento de la dicha capillania por las dichas dos".

Todaren eta Mariaren lehentasuna argi zegoen: arima salbatzea. Hori lortutakoan oinordekoak zetozen.

Laburbilduz, Erdi Aroaren amaierako lekeitiarrentzat heriotza ataka izugarria zen, baina kristau fedek eta salbazioaren itxaropenak leundu egin zuen (Ama Birjinaren bitartekaritza oso garrantzitsua zen). Nolanahi ere, zenduaren "kalitatea" jendaurrean agertzeko aukera ona ere bazen. Senideak elkarrengana bildu behar zirenez agurra ospakizun arranditsu bihurtuta, heriotza zenduaren maila sozialaren azken erakuslehoia zen.